



Iaz Euskal Herrian 129 langile hil ziren lan istripuetan; 529 istripu larri eta 64897 arin gertatu ziren; honez gain, badira estatistiketan agertzen ez diren laneko gaixotasunak ere.

Dagoeneko, aurten, 40 langile hil dira eta heriotza horiengatik ez dute inor zigortu. Badirudi sarraski

honek ez duela arduradunik, lan baldintza prekarioak, produkzio neurri ikaragarriak ezartzen dituztenentzako ez duela inongo kosturik; azken batez, esplotatzen dutenei doan irteten zaizkie langileen heriotzak. Egunkarrietan euren mozkinen eta burtsako kotizazioen albisteak argitaratzen diren bitartean; beste datu batzuk ezkutatu egiten dituzte: Lanean ari direla istripua izan eta hiltzen diren langileen %65 kontrata edo azpikontrata batekoa da; eta 25 langile baino gutxiagoko enpresetan kasuen %52a. Langileen %56ak lan erritmo ikaragarriak jasan behar ditu, %42k zarata oso altuak eta %28ak estresa pairatzen du, %40k lan monotonoak egiten dituzte eta %33 bizkarreko minen kezu da. Gainera, enpresen %56,6 ez du formakuntzarik eskaintzen, %59k ez dauka segurtasun eta osasun batzorderik eta %54k arriskuen ebaluaziorik ere ez dauka eginda.

Hau al da langileok odoletan ordaindu behar dugun prezioa enpresak errentagarri izan, aberastu eta mozkinetan lehia daitezen? Administrazioek ezikusiarena egin eta gezurrezko estatistikak argitaratzen dituzten bitartean, enpresariak ez dute dirurik inbertitzen prebentzio eta formakuntzan. Honi biolentzia deitzen zaio, biolentzia sistematiko eta estrukturala; baina honegatik inork ez du zigorrik jasotzen.

Langile klaseak aski dela esateko aukera dauka. Egoera jasangaitz honen kontra borrokatu behar dugu, duintasun eta elkartasunagatik.

Salaketa, konpromiso eta borroka bide bat zabaldu behar dugu egoera hau irauli ahal izateko; ikastetxez ikastetxe, enpresaz enpresa, herriz herri. Aski da, gure osasuna eta bizia daudelako jokoan!

aski da!

27an LANUZTEA 12:00 - 13:00

Apirilaren 28a, lan osasunaren nazioarteko eguna da. Baina guk ez daukagu egun hori ospatzeko arrazoirik eta are gutxiago itxurakerietan galtzeko gogorik. **Guretzako, aldarrikapen eta borroka eguna da.**



<http://www.labsindikatua.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Fermin Lasuen, 13 behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatua.org	Rekalde zumarkalea, 62 behea 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatua.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatua.org	Martzelo Zelaieta 75, 2-A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatua.org	7 Coursic KARRIKA 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatua.org